

Hizkuntza-komunitateak harremanetan Euskal Herrian: balio etikoetan oinarritutako diskurtsoaren beharra

Patxi Juaristi

- Nola ahuldu hizkuntza-gatazka?
- Nola hobeagotu hizkuntza-bizikidetzak?

- ◉ Hizkuntza-ukipena = desoreka, gatazka edota lehia.
- ◉ Hizkuntza bakoitzak funtzio edota erabilera-eremu berriak nahi dituelako edota lehendik dituenak babestu.

- ◉ Euskal Herrian ere gizarte elebitasun desorekatua, mendekotasun harremanak edota diglosia glotofagikoa bizi ditugu.
- ◉ Hizkuntza-gatazka herritarren diskurtso kontrajarrietan islatzen da.

◉ XVI. mendean hasi ziren eraikitzen euskarari buruzko bi diskurtsoak:

- > Euskararen aldeko diskurtsoa
- > Euskararen aurkako diskurtsoa

ALDEKOEK

- ◉ Diru publiko gehiago.
- ◉ Etorkizunean euskaraz bakarrik edo euskaraz orain baino gehiago.
- ◉ Zenbait lanposturako euskara jakitea exijitu.
- ◉ Euskara egokia da komunikazio behar berrietarako.
- ◉ Euskaren aldeko neurriek ez dituzte erdaldunak diskriminatzen.
- ◉ Euskara ez da zama bat enpresarentzat eta merkatarientzat.

AURKAKO EK

- ◉ Diru gehiago ez.
- ◉ Zentzugabea da euskararen alde hainbeste ahalegin egitea.
- ◉ Gaztelania edo ingelesa jakitea garrantzitsuagoa da.
- ◉ Abertzaleen kontua da, ez herritar guztiona.
- ◉ Euskararen aldeko neurriek erdaldunak diskriminatzen dituzte.
- ◉ Euskarak ez du laguntzen integratuago egoten
- ◉ Zenbait lanposturako ez litzateke euskara exijitu behar.
- ◉ Euskara zama bat da enpresarentzat eta merkatarientzat.
- ◉ Euskara ez da egokia komunikazio behar berrietarako.

- ◉ Bi talde hauek ez dira monolitikoak. Ñabardurak daude.
- ◉ Tipo ideal hauek baliagarriak izan daitezke gaiaren inguruan hizkuntza komun bat sortzeko; gure errealitateari buruzko ondorioak ateratzeko; eta hipotesiak egiteko.

- ◉ Gatazka saihestezina da, baina posible da hizkuntza-komunitateen arteko bizikidetza hobeagotzea.

◉ Bizikidetza hobeagotzeko bi gauza behar ditugu:

> Arau, lege edota politika argiak.

> Arau horiek barneratzeko eta errespetatzeko, balio etikoetan oinarritutako diskurtsoa.

◉ Lau balio etiko jorratu eta hedatu behar ditugu elkarbizitza linguistikoari dimentsio etiko-morala emateko:

- > egia
- > askatasuna
- > errespetua-toleranzia
- > justizia.

Egiaren izenean

- Hizkuntzen inguruan dauden gezurren, esamesen eta aurreiritzien aurka egin behar da.
 - > Kontzeptuak bateratu behar dira.
 - > hizkuntzen egoerari buruzko datuak zabaldu.
 - > Hizkuntzen errealitateari buruz pedagogia gehiago egin.

Askatasunaren izenean

- Gizabanakoek nahi duten hizkuntzan bizitzeko eskubidea dute.
- Batzuk erdaraz bizitzen jarraituko dute. Beraz, elebitasun desorekatuak jarraituko du.
- Hizkuntza-komunitateak aske izan behar dira euren hizkuntzaren biziraupenaren alde lan egiteko.
- Eskubide indibidualen eta kolektiboen artean oreka lortzeko bide bat izan daiteke hizkuntzen inguruan sortzen diren arauak egoera soziolinguistikoaren arabera egokitzea.
- Hizkuntza politika bera ere, egoera soziolinguistikoaren arabera egokitu daiteke.

Errespetua-tolerantzia

- Ezinbestekoa da erdaldunak eta euskaldunak elkar ezagutzeko ekimenak martxan jartzea.

Justiziaren izenean

- ◉ Justizia konmutatiboa behar dugu: hizkuntza bakoitzari bere egoeraren arabera lagundu behar zaio.
- ◉ Euskararen aldeko politikak bultzatzea justiziaz jokatzeko da, euskararen eta erdaren arteko desorekak eta desberdintasunak murrizten direlako.